

SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

21. BILERA AKTA

EGUNA: MAIATZAK 22, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ZUMARRA GELA

BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA

OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA

BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA

IRAIN ESKOLA

MAIRU ANTZERKI TALDEA

TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA

LESAKAKO ABESBATZA

GILTZARRI ABESBATZA

MUSIKA ESKOLA

MUSIKA BANDA

TXISTULARI TALDEA

BORTZIRIETAKO GORRIAK

ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA

EH BIDU TALDEA

AINZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da.

Azkeneko aktaren inguruan aipatzen da dirulaguntzen inguruko bozketa-emaizta kultur batzordera eraman zela eta bertan Sorginxulon erabakia onartzea adostu zela.

SANFERMINAK 2021

Ostalariekin bilerak egin dire, udalan idatzi bat prestatzen ari da Plenoan onartu eta argitaratzeko...erabakia iazkoaren antzekoa izanen da. Bestetako partidaren zati bat Udako Zikloa indartzeko erabiliko da eta Sanferminetako ekitaldi batzuk udako zikloan sartu eta udan zehar egitea pentsatu da (dantza saioa, bertsoak, Txaranga...).

UDAKO ZIKLOA

Egitaraua nola doan osatzen aurkezten da. Data batzuk zehaztuak daude bertze batzuk oraindik ez dira behin betikoak.

Proposatzen direnen ekitaldien artean Idoia Asurmendi, Abesbatzakoei berriz aipatzen zaie Kantuz Udako Zikloan sartzeko aukera,...

Itxiera ekitaldia iazkoaren antzekoa planteatzen da beraz talde bakoitzak kideekin aipatuko du. Data irilaren 17, 18, 19 asteburua izanen da.

Udako zikloaren aurkezpen antzeko bat egitea proposatzen da. Kartela izatean denok elkartu eta argazkia egin, azalpen ttiki bat emanez nondik sortu den, Sorginxulon sortu dela.... Ongi ikusten da.

Udan zinea kanpoan egitea porposatzen da, aurrekontuak eskatuko dira.

BOLONDRES SAREA

Udako ziklorako bolondres sare bat egitea proposatzen da. Nola egin?. Ekitaldi bakoitzeko 3 edo 4 lagun nahikoak izanen ziren. Data zehatzak izatea komeniko zen.

Bertso eskolakoek bertso emanaldiak beraien kontu hartuko dituzte eta antzerkikoak Mairuk.

Ekainaren 15erako sarea sortzea komeniko litzake. Deialdia eginen da nor dagoen prest zehazteko eta datak jakin ahala jendea banatuko da.

LIBURU XURIA

Behin betiko epea jartzea erabakitzen da, ekainak 10.

Ibanek aipatzen du Zerbitzu Elkartek bertan egotea proposatu duela. Elkarrekin hau ez da ikusten liburu horretan, kultura helbururik ez zaio ikusten. Solastuko da beraiekin, ea nola ikusten duten.

UEU JARDUNALDIAK

Gotzon Barandiaranek (idazlea, kultura munduan ibiltzen dena, bilgunea martxan jartzeko bileran egon zena...) jardunaldi bat hemen egitea proposatu du, ezagutzen du hemengo dinamika, eta azaroaren 13an egitea proposatu du, bi hitzaldi, bi mahai inguru, sorginxulori ere tartea eskeinitzeko zitzaien...goiz oso bat. Aurrekontua 1.600-2.000 € inguru izanen zen.

KEZKAK ETA GALDERAK

Harriondoaren funtzionamenduari buruz galdetzen da, araudia berriarekin ea nola gelditzen den. Aforoa %50 eta ordutegia 22:00ak arte.

Hurrengo bilera ekainaren 26an egitea adosten da.